



JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C

Tel: 948 76 43 75

junta@aezkoa.net

valledeaezkoa@gmail.com

www.aezkoa.org

Aezkoako Batzarre Nagusiaren zerbitzura, lanaldi erdian, hutsik gelditutako administrari laguntzailearen lanpostua aldi baterako betetzeko deialdiaren oinarriak.

1. OINARRIA- ARAU OROKORRAK

- Deialdi honen xedea da administrari laguntzaile lanpostu bat aldi baterako lan-erregimenean betetzea, oposizio-sistemaren bidez. Lanpostu hori bat dator Aezkoa Batzarre Nagusiaren plantilla organikoan ezarritako mailarekin. Bete beharreko funtzioak bere mailari eta kategoriari dagozkionak izanen dira, jendeari arreta pertsonalizatua ematea barne.

- Kontratuak gehienez ere hiru urteko iraupena izanen du, plaza deialdi publiko baten bidez berriro betetzen den arte.

2. OINARRIA- PROZEDURA.

Ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onartutako Nafarroako Administrazio Publikoen Diru-sarrerari buruzko Erregelamenduaren 42.1 eta 42.2-D artikuluetan xedatutakoaren arabera, aldi baterako langileak hautatzeko prozedurek kontratazioa ahalik eta arinen egiteko aukera eman beharko dute. Halaber, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak xede horretarako igortzen duen zerrendan jasotako hautagaien artean egindako hautaprobeen ondorioz eratutako izangaien zerrendak erabilita egin ahalko dira, lanpostua betetzeko probetan lortutako puntuazio-ordenaren arabera.

Kontuan hartuta kasu honetan kontratatzeko arintasuna behar dela, lanpostua hutsik gelditu baita titularrak hartutako eszedentziaren denboraldia (2020ko azaroaren 25ean hasi zen) iraungi delako eta haren ordezkioak borondatez utzi duelako lana, ahalik eta azkarren bete nahi da. Beraz, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, Agoizko bulegoari, dagokion lan-eskaintza eginen zaio, horren zabalkundea egin dezan enplegu-eskatzailen artean eta baita enplegua hobetzeko lan-eskatzailen artean ere, baldin eta oinarriak aipatzen dituen betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, hautaketa-prozesuan parte hartzeko interesa duen beste edozeinek dagokion eskabidea aurkeztu ahal izanen du Aezkoako Batzarre Nagusian, oinarri hauei erantsitako ereduaren arabera. Horrekin batera, NANaren kopia eta enplegu-eskatzaille gisa edo enplegua hobetzeko eskaera edozein enplegu-bulegotan egin izanaren egiaztagiria aurkeztu ahal izanen ditu, deialdi honetan ezarritako eskabideak aurkeztu baino lehen, bai eta deialdi honetan aurreikusitako gainerako agiriak ere. Oinarria Dokumentu

guztiek jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izan beharko dute.

3. OINARRIA- PARTE-HARTZAILEEN BALDINTZAK.

Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

a) Europar Batasuneko estatu bateko herritarra izatea, edo langileen zirkulazio askea jasoa duten Europako Erkidegoak izenpetu eta Espainiak berretsita nazioarteko itunen aplikazio-eremuko estatu batekoa izatea.

b) Hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskola Graduatua, Lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea izatea, edo titulua lortzeko moduan egotea (titulua lortzeko eskabideak ordaindu izanaren frogagiria) eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

d) Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Funtzio publikoak betetzeko ezgaituta edo etenda ez egotea eta administrazio publiko baten zerbitzutik bananduta ez egotea.

f) Batzarre Nagusiaren plantilla organikoan ezarritakoarekin bat etorritik, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 gaitasun-mailari dagokion euskararen ezagutza egiaztatzea. Ezagutza hori egiaztatzeko, Hizkuntza Eskola Ofizial batek edo ofizialki baliokidetzat aitortutako titulu batek emandako gaitasun-ziurtagiria aurkeztu beharko da, edo izangaiek deialdian eskatutako hizkuntza-maila duen ala ez zehazten duen proba gainditu beharko da.

Aurreko baldintzak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaz gain, hautaketa prozeduran eta kontratazio-aldian ere bete beharko dira.

4. OINARRIA- INSTANTZIAK

4.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Batzarre Nagusiaren (Santa Maria kalea – Ariben) Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, 09:00etatik 13:00etara) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2005 Legearen, urriaren 1ekoa, 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztea erabakitzen bada, gutun-azal irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko langileek data eta zigilua jar diezaioten eskabideari, ziurtatu aurretik. Dokumentazioa Administrazio

Prozedurari buruzko Legeak ahalbidetzen duen beste bitartekoren bat erabiliz aurkezten bada, eskatzaileak administrazio kontratatzaileari jakinarazi beharko dio eskabidea igorri duela telexaren edo telegramaren bidez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna eta ordua baino lehen.

AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA: 2022KO EKAINAREN 30A

Bi baldintza horiek bete ezean ez da dokumentazioa onartuko, baldin eta kontratazio-organismoak oinarri hauetan adierazitako epea amaitu eta gero jasotzen badu.

Nolanahi ere, adierazitako dataren ondorengo bost (5) egunak igaro eta dokumentazioa jaso ez bada, ez da inola ere onartuko.

Eskabideak I. eranskinean agertzen den ereduari jarraikiz egingen dira. Eredu hori Batzarre Nagusiko bulegoetan eskura dago, eta baita www.aezkoa.org webgunean ere.

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean.

Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren eta eskatutako titulazioaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, edo, bestela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen agiria, bai eta eskatutako euskara maila duela edo dagokion mailako proba egiteko eskaera egin dutela egiaztatzen duen agiriarena ere.

4.2.–Eskariak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko ekainaren 30ean amaituko da. Batzarre Nagusiko bulegoetako jendaurreko ordutegia 08:00-15:00 bitartekoa da (Bulegoa itxita egongo da ekainaren 22tik 27ra, biak barne) Deialdi hau eta berarekin lotutako epeak eskura daude Aezkoako Batzarre Nagusiko iragarki-oholean, instituzioaren webgunean (www.aezkoa.org) eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan egindako eskaintzan.

5. OINARRIA – ONARTUTAKOEN ZERRENDAK

Eskabideak aurkezteko epea igarotakoan, Batzarre Nagusiburuak onartutako eta baztertutako izangaien zerrendak onartzeko ebazpena emanen du, eta horiek jendaurrean jarriko dira iragarki-oholean, probak egiteko eguna eta orduarekin batera, aurkeztutako izangai kopuruaren arabera, egun bakarrean egin nahi direnak, euskararen ezagutza-proba izan ezik.

6. OINARRIA – EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

6.1. Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

Presidentea: Karlos Bueno Reka, Aezkoako Batzarre Nagusiburua – Ordezkoa: Ainhoa Martínez Juango, Batzarre Nagusiburuordea.

1. Epaimahaikidea: Isabel Erneta Erro, Erroibar, Auritz eta Orreagako udaletako administrari laguntzailea. – Ordezkoa: M^a José Garralda Zubiri, Erroibar, Auritz eta Orreagako udaletako administrari laguntzailea.

2. Epaimahaikidea: Amaia Barberena Elarre, Zaraitzuko Ibaxaren Batzordeko administrari laguntzailea – ordezkoa: Miriam Leiva Hualde, Ezkaroze, Orontze eta Jaurrietako udaletako administrari laguntzailea.

3. Epaimahaikidea: Francisco Javier Arráez Ciordia, goi mailako teknikaria Informatika Sistemen Administrazioan. Ordezkoa: titularrak izendatzen duena.

Epaimahaikide-Idazkaria: Esther Urtasun Fuertes, Batzarre Nagusiko idazkaria.- Ordezkoa: Edurne Eginola Antxo, Orbara eta Orbaizetako udaletako idazkaria.

6.2. Epaimahai kalifikatzaileko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Batzarre Nagusiari jakinarazi beharko diote, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2005 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoiak daudenean.

Era berean, hautagaiek epaimahaikideak ezetsi ahal izanen dituzte inguruabar horiek gertatzen direnean.

Legez ezarritako abstentzio eta ezespen arrazoiak aplikatuz, epaimahaiaren osaketa aldatuko balitz, onartu eta baztertutako izangaien zerrendekin batera argitaratuko da epaimahaiaren osaketa.

6.3. Epaimahaia hautaketa proba egin aurretik osatu beharko da.

Epaimahaia ezin izanen da osatu, ezta jardun ere, horien kideetako gehiengo absolutua bertaratzen ez bada. Era berean, epaimahaia osatzeko ezinbestekoa izanen da haren presidentea eta idazkaria bertan egotea.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeari eta aplikatzeari buruz ager daitezkeen afera guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari espezialisten laguntza izan ahalko du probarako. Aholkulari horiek soilik beren espezialitate teknikoari buruzko aferetan arituko dira, eta epaimahaiarekin lankidetzan arituko dira espezialitate horiek bakarrik oinarri hartuta.

7. OINARRIA.– HAUTAPEN PROZESUAREN GARAPENA ETA BALORAZIOA

7.1. Hautaketa-prozesua epaimahai kalifikatzaileak adierazten duen egunean hasiko da, eta 2022ko uztailean izatea aurreikusten da. Onartuen eta baztertuen zerrenda onartzeko egintza berean zehaztuko dira probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

7.2. Oposizioak fase eta ariketa hauek izanen ditu:

A) **Ariketa teoriko-praktikoa:** 20 galdera teoriko-praktikorekin osaturiko galdetegi bati idatziz erantzutea; horietatik 15 deialdiaren xede den lanpostuarekin lotutako alderdiei eta afera administratibo orokorreari buruzkoak izanen dira; gainerako 5ak informatikako ezagutza orokorreari eta Windows sistema eragileari buruzkoak izanen dira.

Ariketaren balorazioa gehienez 20 puntukoa izanen da. Proba honetan baztertuko dira gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

B).- Ariketa praktikoa.

b.1) Lehen ariketa:

Deialdiaren xede den lanpostuan eta toki-erakunde baten esparruan egin ohi diren bi dokumentu edo gehiago (ofizioak, bandoak, iragarkiak, instantziak, gutunak, etab.) prestatzea.

Epaimahaiak kasu praktikoa bakoitza idatziz, ahoz edo ordenagailuz egitea eskatu ahal izanen du. Proba horretan alderdi gramatikalak, dokumentuaren aurkezpena, edukia eta epaimahaiak emandako datuak zuzen jaso diren baloratuko da.

Ariketak 35 puntu izanen ditu gehienez.

b.2) Bigarren ariketa: Informatika proba. Ariketa praktikoa izanen da, Windows inguruaren (Word, Excel y Access, Internet, Outlook) ofimatika eta udal-kudeaketaren ingurukoari buruzkoa.

Ariketak 35 puntu izanen ditu gehienez.

7.3. Probak deialdi bakarraren bidez egingen dira, eta izangaiek bertara agertuko dira Nortasun Agiri Nazionalarekin (edo legez baliokidea dena). Probatetik baztertuko dira edozein arrazoirengatik, iragarritako egunean, orduan eta lekuan aurkezten ez diren izangaiek. Era berean, derrigorrezkoa izanen da maskararekin agertzea eta norbere boligrafoa eramatea.

Hautaprobak irauten duen bitartean, minusbaliotasunak dituen eta hala eskatzen duen pertsonarentzat ezarriko dira, adierazitakoarekin bat etorritik, proba egiteko denbora- eta baliabide-egokitzapen posibleak.

A eta B1 ariketak pliken sistemaren bidez egingen dira.

7.4. Ariketen kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak hautagaien zerrenda eta bakoitzak lortutako puntuak argitaratuko ditu ariketa egin den leku berean eta Aezkoako Batzarre Nagusiaren iragarki-oholean.

C) Merituen balorazioa

Frantsesa edo/eta ingelera jakitea baloratuko da, gehienez ere 10 punturekin, baremo honen arabera:

- B2 maila edo gorakoa: 5 puntu.
- B1 maila: 2,5 puntu

Titulazio guztiak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko konpetentzia-mailekin bat etorriko dira, eta Hizkuntza Eskola Ofizial batek edo ofizialki baliokidetzat onartutako titulazio batek emandako Gaitasun Ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.

8. OINARRIA.– GAINDITUTAKOEN ZERRENDAA ETAA EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA
--

8.1. Azken proba amaitu ondoren, epaimahaiak puntuaziorik handiena lortu duen izangaia kontratatzeko proposamena egingen dio deialdia egin duen administrazioari, eta lortutako puntuazioaren arabera zerrenda egingen du.

8.2. Proposamena loteslea izanen da deialdia egin duen administrazioarentzat.

8.3. Hautatutako izangaiak gehienez ere astebeteko epea izanen du lanpostura sartzeko, deialdia egin duen administrazioak proposamena onartu eta interesdunari helarazten dion egunetik zenbatzen hasita. Lanpostura sartzen ez bada, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, edo, behin hori eginda, berriz ere hutsik geratzen bada, deialdia egin duen administrazioako organo eskudunak hurrengo izangaiak kontratatu ahal izanen ditu hurrenez hurren, baldin eta, hautaketa-prozesuan lortutako puntuaziorik onenaren arabera, eskaintako kontratazioarekin ados daudela adierazten badute, eta horrela hurrenez hurren eta ordenan. Zerrenda horretan sartuko dira ere proba guztiak gainditu ez dituzten izangaiak.

9. – HELEGITEAK

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurso hauetako bat aurkeztu ahal izango da:

- a) Berraztertze errekursoa egintza egin duen organoari berari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

c) Gora jotzeko errekurtoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten edo argitaratzen den egunetik hilabeteko epean.

Epaimahai kalifikatzailearen egintzen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izanen zaio Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurari, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo hilabetean.

Aribe. 2022ko ekaina

I ERANSKINA

Jaun/andereak		
N.A.N/ Nortasun agiria	Jaiotze eguna [eguna/hilabetera/urtea]	Herria
Nazionalitatea	Helbidea [kalea, zenbakia, eskailera, solairua]	
Posta kodea	Telefonoak	e-maila

ADIERAZTEN DU:

Kargua betetzeko ezgaitzen duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela.

Ez duela indarreko xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez dela diziplinazko espediente bidez edozein administrazio publikotako zerbitzutik banandu, ez eta diziplinazko kaleratzerik ere, eta ez dagoela desgaituta funtzio publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen den titulazioa duela.

Eskatutako baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituela, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean.

☐ Desgaitasuna duela eta, beraz, adierazten diren egokitzapenak eskatzen ditu, adierazten diren arrazoiengatik. (Aparteko folio batean, eskatutako egokitzapenak eta eskaeraren arrazoiak zehaztuko dira).

☐ Minusbaliotasun egoera egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten duela, erakunde eskudunak emana.

Eskabidearekin batera, honako agirien kopia eurkatu duela:

–Nortasun Agiri Nazionala.

–Adierazitako titulazio akademikoa.

–Eskatutako euskara maila egiaztatzen duen titulazioa (EGA/C1)

ESKATZEN DU:

1 – Onartua izatea Aezkoako Batzarre Nagusiren zerbitzura aritzeko administrari laguntzailearen lanpostua kontratatzeko deialdian, hautaprobaren bidez egingen dena, eta aldi batean aritzeko izanen dena (eszedentziagatiko bitartekotasuna).

☐ **Euskararen ezagutza egiaztatzeko proba egitea eskatzen dut (ezabatu, egiaztatzea aurkeztuz gero)**

(Data eta sinadura)

